

HERRI PROGRAMA

2019-2023

2019-04-06



Herri Programa

1. Etokizuneko Pasaia.....	5
1.1. Parekidetasuna.....	5
1.2. Aniztasuna.....	6
1.3. Euskara.....	7
1.4. Gazte politika.....	7
1.5. Adinduak.....	8
2. Pasaia Duina.....	10
2.1. Gizarte politika.....	10
2.2. Etxebizitza.....	11
2.3. Hezkuntza.....	12
2.4. Kultura.....	13
2.5. Kirola.....	15
3. Pasaia Jasangarria.....	17
3.1. Lurralde antolaketa eta biziberritzea.....	17
3.2. Turismoa.....	19
3.3. Merkataritza.....	19
3.4. Ingurumena.....	20
3.4.1. Energia.....	20
3.4.2. Hondakinen kudeaketa jasangarria.....	21
3.4.3. Garraioa eta mugikortasuna.....	22
3.5. Segurtasuna.....	23
3.6. Udal jarduera eta egitura.....	23
4. Pasaia Demokratikoa.....	25
4.1. Gardentasuna, Gobernantza eta parte-hartzea.....	25
4.2. Bakedun Pasaia.....	26
4.2.1. Presoak.....	26
4.2.2. Egia eta memoria.....	26
4.2.3. Errekonozimenduak.....	26
4.3. Udalbiltza.....	27

Sarrera

EH Bilduko kideok pasaitar guztientzako herria eraiki nahi dugu; Etorkizuneko Pasaiak aintzat hartuko du askotarikoak garela, baina aniztasun horri eskubide berdintasunarekin erantzungo dio, bereziki zapalduen daudenen kasuan, hau da, emakumeen kasuan. Pasaia horrek euskara izango du kohesio tresna eta elkargune, eta gazteen zein adinduen beharren arabera jokatu du.

Pasaia Duina dugu jomugan eta bidean. Etorkizunean izango dugun Pasaia gaur-gaurtik eraikitzen ari gara. Pasaitarrok herri duina dugu gogoan. Duina izango da herritarrek beraien bizitza garatuko duten ingurua; herritarrek eta udalak eskutik helduta herri duina eraikiko dugu eta horretarako, erakundeak denentzako kirola, kultura eta hezkuntza jarduerak sustatuko ditu eta are garrantzitsuago, herritarren ekimenak babestuko. Norbanakoen bizitza proiektuek, hainbatetan, komunitatearen laguntza behar dute, eta herri duinek horretara bideratzen dute beraien ahalegin ugari, beste batzuen artean, etxebizitza eta gizarte politikak.

Etorkizuneko herri duin hori, ordea, ezin da edozein modutan lortu. Pasaiako EH Bildu osatzen dugun guztiok modu etiko eta jasangarrian lortu nahi dugu. Pertsonak, natura eta jendartea errespetuz, alegia. Pasaia Jasangarria izango bada, bere mugen barruan egiten den guztia, era ordenatuan gertatu beharko da, eta ordenazio horrek herritarren beharrei erantzungo die eta ez interes ekonomikoei. Barrutietan, herrian bertan zein herriaren eta beste tokien artean gertatzen diren garraio beharrak ere errespetuzko jokamolde horren bidez aseko ditugu.

Aurreko guztia lortzeko Pasaiako EH Bildu eragile ezinbestekoa da, baina ez bakarra. Are gehiago, inportanteena ere ez da. Izan ere, Antxoko, Donibaneko, San Pedroko eta Trintxerpeko herritarrek eraiki behar dute helburuan dugun Etorkizuneko Pasaia. Bide horretan EH Bildu eta Udala bera ere tresnak besterik ez dira. Herria egiteko modu hori da Pasaia Demokratikoa izendatu duguna, eta horri dagokionez, memoria, bakea eta parte hartzea dira egiteko modu horretan sartu ditugun osagaietako batzuk; horiek gabe ezingo baita.

Hurrengo orrialdeetan, lau multzotan -Etorkizuneko Pasaia, Pasaia Duina, Pasaia Jasangarria eta Pasaia Demokratikoa- bildu ditugu hogei bat lan esparru eta ehundik gora proposamen zehatz. Planteamendu horietako bakoitzak berariazko garapen maila dauka: batzuk aztertzeko ideiak dira, beste batzuk, ordea, dagoeneko jorratu diren proiektuen jarraipena dute. Nolanahi ere, pasaitarron bizitza kalitatea handitzeko nahia da horien guztien ardatza.

Herri programa honek proposamen multzo bat baino gehiago izan nahi du, lehen paragrafoan deskribaturiko herria lortzeko irizpideak eman nahi dizkio EH Bilduren udaleko jarduerari. Egunez egunekoan, aurreikusi gabeko arazo eta egoera berri asko agertzen dira, eta horien aurrean jokatzeko modua ere biltzen du, alorrez alor, esku artean duzun programak.

Azkenik, ohar garrantzitsua: Pasaiaiko EH Bilduko kideok osatu dugu programa hau batzarretan, bileretan, elkarrizketen bidez, teknologia berriak baliatuz..., baina ez dugu gudan bakarrik pentsatu. Proposamen politiko hau herrikide guztiengan pentsatuz luzatzen diogu herriari, denen artean eraikiko baitugu Etorbizuneko Pasaia.

1. Etorkizuneko Pasaia

Etorkizuneko Pasaia pasaitarrak modu duin, aurreratu eta berdinzalean tratatuko ditu. EH Bilduk gobernaturiko udalak tresna guztiak jarriko ditu hori horrela izan dadin.

Gizarte zintzo batek zaugarrien diren pertsonak beti jarriko ditu bere erakundeen jardueraren erdigunean. Hortaz, pertsona horien beharrek udalak gauzatzen dituen politika guztietan isla edukiko dute zeharkako politiken bidez. Pasaitar guztiek eskubide berdinak eduki behar dituzte, edozein dutela sexua, jatorria, adina... Aniztasun hori bera da herriaren eta barrutien ezaugarria eta izaten jarraitu behar du EH Bilduk irudikatzen duen Pasaia euskaldunean.

1.1. Parekidetasuna

Emakumeok bigarren mailako herritarrak izaten jarraitzen dugu, eta horrek kontra egiten dio EH Bilduk proposatzen duen etorkizuneko Pasaia. Hori dela-eta, kalean zein instituzioetan indarkeria matxistaren forma guztiei irmoki erantzungo die jendarte parekidearen bidean. Alor horretan, ezinbestekoa da emakumeak esparru pribatura eta gizonak esparru publikora lotzen dituen sistema aldatzen hastea, eta horretan udalak eragin dezake, besteak beste, heziketaren, esku-hartze publikoaren eta banakoen babesaren alorretan.

Elkarbizitza eta parekidetasuna bultzatuko dituzten ekintza eta politikak garatuko ditu udalak eta gaitzetsi egingo ditu gizon-emakumezkoak izaki sexudun eta anitzak garela ukatzen dutenak. Azken batean ikuspegi feministarekin jokatu du EH Bilduk gidatuko duen Pasaia udal gobernuak.

Neurriak:

- Genero ikuspuntua barneratzeko eta alor honetan gizartearen eraldaketa burutzeko, udalak sustatuko du elkarlana beste erakundeekin, elkarteekin eta gizarte, kultura eta sindikatu eragileekin.
- Indarkeria matxistaren prebentziorako programak garatzen jarraituko dugu.
- Udalak harreman onak sortzeko helburua eta estereotipoak apurtzeko asmoa duten programak zuzenduko dizkie haurrei.
- Dagokionean, diagnostikoa eguneratu eta Udalaren Berdintasun plana berrituko dugu

- Udala eta ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzen jarraituko dugu, hezkidetza programen bitartez.
- Oarsoaldean adostutako jarrera sexisten eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa garatzen jarraituko dugu.
- Hitzarmenetan, diru-laguntzen banaketan... berdintasun irizpidea txertatzea bermatuko du udalak.
- Puntu beltzak desagerrarazteko neurriak hartuko ditugu.

1.2. Aniztasuna

Pertsona guztientzat eskubide guztiak eta aukera berdinak biltzen dituen ideiak gidatuko ditu Pasaiaiko EH Bilduren egitekoak alor honetan. Horretarako guztion berezitasunak errespetatu eta komunean ditugun elementuak bilatuko ditugu elkarbizitza printzipio nagusi ezarriz; hau da, elkar-ezagutza, elkar-ulertzea eta elkarrekiko aitortza tresna gisa erabiliz. Bide horretan, euskara, kohesio eta komunikazio bitarteko gisa aintzat hartu behar da, elkarbizitzaren eraikuntzaren ezinbesteko elementua da, kohesiorako tresna, alegia.

Neurriak:

- Jatorri desberdinetatik Pasaiara datozen pertsonen begirako Harrera protokoloa jendarteratuko dugu herriko eragileekin elkarlanean.
- Jatorri aniztasuna balio gisa ulertzen dugu; honenbestez, gizarte, kultura eta lan eragileekin zein beste elkarte eta erakundeekin elkarlana sustatuko dugu balio hori zabaltzeko.
- Udalak harreman onak sortzeko helburua eta estereotipoak apurtzeko asmoa duten programak zuzenduko dizkie haurrei.
- Diagnostikoa eguneratu eta egun Udalak duen Aniztasun plana berrituko dugu.
- Udalaren eta ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzen jarraituko dugu, hezkidetza programen bitartez.
- Hitzarmenetan, diru-laguntzen banaketan... aniztasun irizpidea txertatzea bermatuko dugu.

1.3. Euskara

Euskara dugu berezko hizkuntza, gure kultura eta nortasunaren funtsezko osagarri. Euskarak badu balio erantsia, denok irabazten dugu bere normalizazioarekin, hau da, herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehentasunezkoa izatea.

Guztion ondare den heinean, euskaldunona izateaz gain, jaso ezin izan dutenena, ezintasunean galdu dutenena zein bertan biziko direnena, udalak bere eskumenetan diren baliabideak garatuko ditu, ahalik eta biztanle gehienek ikas dezaten eta ahalik eta presentzia handiena izan dezan.

Neurriak:

- Euskara lehentasunezko hizkuntza izango da udalaren jardueran.
- Helduen euskalduntzeari dagokienez, gutxieneko ezagutza unibertsala bultzatzeko beka sistema hobetzen jarraituko du udalak. Ahal dela, euskaraz ez dakitenei hizkuntza hau erakargarri egiteko ekimenak sustatuko ditu udalak. Era berean TELP (hizkuntza ohiturak) ikastaroak antolatuko ditu udalak.
- Belaunaldien artean hizkuntzaren transmisioa lantzeko bideak aztertuko ditu udalak.
- Hizkuntzaren alorrean udalak dituen eskumenen eta beretzat hartzen dituen egitekoen barruan, euskararen erabilera areagotzeko ekimenekin aurrera jarraituko du, bai bere baitan bai herriko elkarteekin.
- Udalak bereziki hartuko ditu kontuan gazteen artean erabilera sustatzeko ekimenak.
- Euskararen kontseilua indartu eta sustatuko du udalak.
- Euskara planak aurreikusitakoaren arabera, udalak bermatuko du bere lan-eskaintza publikoetan langileen hizkuntza-eskakizunak betetzen direla.
- Euskara planaren baitan, diru-laguntzak ematean eta elkarteekin egiten diren hitzarmenetan euskal hiztunon eskubideak errespetatzea bermatuko da.
- Euskara ikastea doakoa izan dadin ahaleginarekin jarraituko dugu.

1.4. Gazte politika

Pasaitarrak adinean ere anitzak dira eta, horregatik, udalak gazte politikak zeharkakotzat joko ditu. Gazteak ahalduntzea nahitaezkoa da Pasaia hobearen bidean egin. Gazteak erabakien parte

izatea nahi dugu EH Bilduko kideok, gazteei zuzenduriko politika konkretuetan zein politika orokorretan.

Aurreko guztia gogoan, parte-hartzea izango da udalak erabiliko duen tresna eta gazte-politikaren oinarri nagusia, gazteriaren ahotsa entzuna eta aintzat hartua izan dadin. Azken batean, aintzat hartu behar da gazteak subjektu aktiboa direla esparru ugarritan, izan kultura, izan kirola edo izan gizarte mugimendutan.

Neurriak:

- Zeharkako politikak izango dira gazteriari zuzendutakoak. Urteetan udaleko sailen arteko mahaiak egindako lana garatzen jarraituko dugu; alor honek gidari izango du indarrean dagoen haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana.
- Gazteentzako enplegu plana garatuko dugu.
- Gazte lokalen inguruko gazte, jabe eta bizilagunekin batera egindako parte-hartze prozesuaren ondorioak bildu eta abian jarriko ditugu.
- Gazteen aisialdi ereduaren hausnarketa bat burutzea proposatzen dugu; eredu berriak bultzatu beharko lirateke, gazteen auto-antolaketa eta parte-hartzea. Era berean, aintzat hartu beharko dira balore hezitzaileak, euskara eta auzolana.
- Dauden udal jabetzako lokalen erabilera aztertu eta sustatu gazteek erabil ditzaten aurreko balioei jarraituz.

1.5. Adinduak

Gazteen inguruko politiken kasuan bezala, adindunei zuzendutako politikek ere zeharkako jokaera behar dute. Kasu honetan ere, adinekoak ez dira politiken objektu soila, helduek ere parte hartu behar dute politika horien definizioan, euren ekarpenak eta eskarmentuak aniztasunean sakontzeko balio baitute.

Alor honetan ere udalak bere baliabideak pasaitar guztien integrazio osoa sustatzera bideratuko ditu, gizarte bazterketa eta desberdintasunei aurre eginez.

Adinduak zaintzeko lanaren onarpena, eta lan hori duintzean berari dagozkion egitekoak aintzat hartuko ditu udalak, eta zainketak libreki aukeratu eta egiten direla bermatzeko jardungo du.

Neurriak:

- Adinduei begirako aisialdi, zaintza, konpainia... programak landuko ditugu.

- Adinduen eta gazteen arteko transmisio programak burutuko ditu udalak.
- Adineko pertsonen parte-hartzea bultzatuko da kultura jendarte eta aisialdiko proiektu guztietan.

2. Pasaia Duina

Herriaren duintasuna bere herritarrak tratazen dituen moduan islatzen da. EH Bilduk gobernaturiko udalak beti izango ditu gogoan behar handienak dituztenak, eta premia horiek asetzeko jardunak lehentasuna edukiko du eta irizpide horren arabera gidatuko ditu bere gizarte politikak, etxebizitzaren ingurukoa... oro har, bidezkoagoa izango den herria lortzera zuzenduriko jardun guztiak.

Politika hauen helburuak dira gizarte zerbitzuen sistema publiko eta unibertsala sortzea, eta hiritar bakoitzari existentzia duina bermatzeko adinako baliabideak ematea. Komeni da pobrezia eta gizarte-bazterketa bereiztea, azkenak ez baitu soilik dimentsio ekonomikoa. Pertsona baten bazterketa definitzen dutenak enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte harremanak eta parte-hartze politiko eta soziala dira, besteak beste. Horregatik, gizarte-bazterketaren kontrako jarduerak gizarte zerbitzu, osasun, etxebizitza, hezkuntza edo enplegu politika integralen baitan artikulatu behar dira, bai eta hirigintza, garraio edo kulturatik ere. Alor horietan guztietan jardungo du udalak Pasaia duina lortzeko xedez.

2.1. Gizarte politika

Gizarte zerbitzuak dira herri kohesionatu bat lortzeko udal tresna nagusietako bat, baina ez bakarra. Ongizate estatua eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar da, eta Pasaia udalak bere ahalmenen barruan horretara bideratuko ditu bere ahaleginak. Gure ereduak berdintasun, justizia soziala eta aberastasun birbanaketa printzipioetara egokitu behar du.

Askok kontrakoa dioten arren, krisi ekonomikoak indarrean jarraitzen du. Egoera honetan ahulenak izan dira murrizketa bortitzen kostua beren gain hartu dutenak, areago, emakumeak. Egoera honen aurrean udalak zainketa duinak eta kalitatezkoak eskaini behar ditu. Zainketok duinak izango dira jasotzen dituztenentzat zein ematen dituztenentzat. Izan ere, alor hauetan diharduten langileei dagozkien lan-baldintzen aitortza egin behar zaie, sektore honetan gertatzen diren privatizazioaren ondorio kaltegarriak arinduz.

Neurriak:

- Haur eta nerabeen alorrean: Inguru Irekiko Programa (kale hezitzaileak) aurrera eramango dugu.
- Larrialdietarako Diru-Laguntzak bermatzen jarraituko dugu. Larrialdietarako dirulaguntzak beharizan oinarritzkoenak ordaintzera (etxebizitza, argindarra,

betaurrekoak...) bideratuta daude. Eusko Jaurlaritzak du horren eskumena. Azken urteetan Jaurlaritzak ez du beharrezkoa litzatekeen dirua bideratu, eta Pasaian Udalak bermatu du falta izan dena.

- Desgaitu fisikoak eta psikikoak zein menpekotasuna dutenentzat zaintzarako laguntzak aztertuko ditu udalak.
- Aniztasun funtzionala sortzen duten arazo fisiko zein psikikoei eta bere ondorioei irtenbidea emango die udalak, bere eskumenen eta ahalmenen barruan.
- Gizarte inklusiorako udalaren programa propioak eta gure garapen agentzia den Oarsoaldeak dituenak elkarlanean arituko dira.
- Etxez etxeko zerbitzuaren indartzea sustatuko du udalak; arreta berezia emanaz langileen lan baldintzei.
- Haurren eta nerabeen prebentzio programekin jarraituko dute udal zerbitzuek.
- Familietan esku hartzeko programaren etorkizuna aztertuko da.
- Herriko hezkuntza sistemarekin elkarlanean jarraituko du udalak, prebentzio komunitarioko programa osatzeko.
- Elkarateak eta boluntarioak sustatzeko programa errebisatu eta beharrezko bada gaurkotuko du.

2.2. Etxebizitza

Pertsonon bizitza proiektuan oinarritzko osagaia da etxebizitza duin eta egoki baterako aukera. Hori posible egiteko beharrezkoa da politika publikoaren esku-hartzea. Arazo honek garrantzi berezia hartzen du Pasaian herriak lur eskasia eta populazio dentsitatea altua dituelako. Erakundeek, tartean Pasaia Udalak, helburu honen mesedetan jokatu behar dute, eta espekulazioaren kontrako politikak indartu behar dituzte, pertsonak etekinak baino garrantzitsuagoak direlako.

EH Bilduk etxebizitza eskubide unibertsal bilakatuko duen ereduaren alde egiten du eta horretarako eragileekin elkarlanean jardungo du. Eredu honek alokairuaren aldeko apustua egingo du. Alokairu publikoa sustatzea, etxe hutsen erabiltzea eta birgaitzea izango dira lehentasunak; ahalik eta gutxien eraikitzea eta lur berriak ez okupatzetik abiatuko dira udal politikak.

Neurriak:

- Etxebizitza hutsen udal errolda publikoa osatuko dugu, jabeen eta etxea behar dutenen arteko harremana errazteko. Era berean, Pasaian dauden etxebizitza hutsak alokairu sozialera bideratzeko neurriak bultzatuko ditugu; gai korapilatsua izaki, alor honetan ere beste administrazioekin elkarlana bilatuko dugu.
- Etxe hutsak merkaturatzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ-IBI) errenergia berrezartzea aztertuko dugu, 2011-2015 legegintzaldian emandako urratsei jarraipena emanaz. Era berean, alokairu soziala sustatzeko politiketara bideratuko ditugu baliabide gehiago.
- Gehiago zabalduko dugu gaur egun Gizarte Zerbitzuek etxebizitza ordaintzeko ematen duten laguntza. Ekimen honek helburutzat dauka beharrezko dauden beste sektore batzuetara heltzea, hala nola, gazteengana, guraso bakarrek familiengana...
- Eusko Jaurlaritzak Luzuriagako 2. fasea egin dezan borrokatzen jarraituko dugu, eta Belaskoko 2. fasea gauzatzeko hitzarmen bat bilatuko dugu, alokairu soziala lehenetsiz.
- Kaskoetako etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartuko ditugu, besteak beste, ordenantza berraztertuko dugu.
- Etxegabetzeak gertatzen jarraitzen dutenez, Udalak bere eskuetan dagoena (besteak beste, laguntza juridikoa eta lehen arreta) egingo du etxegabetzeak saihesteko eta gertatzen diren kasuetan bere ondorioak leuntzeko. Hori dela eta, kaltetuei laguntza emateaz gain, harreman iraunkorra mantenduko du etxe-gabetzeen aurka lanean ari diren eragileekin. Udalak finantza erakundeekiko harremana aztertuko du gai honetan duten jokamoldearen baitan.

2.3. Hezkuntza

Hezkuntza eta kultura herri duina lortzeko ezinbesteko tresnatzat jotzen ditu Pasaia EH Bilduk. Udalak alor honetan dituen egitekoak ideia zehatz baten gauzatzera bideratuko ditu: aukera berdintasuna bultzatuko duen, ikasle eleanitzak lortuko dituen eta hezkidetzara aurrera eramango duen hezkuntza eredu inklusiboa ezartzea.

Neurriak:

- Udal eskumenetik haratago egon arren, Pasaiaiko Udalak, aurreko helburuak lortu ahal izateko, herrian diren eskola entitateak lagunduko ditu eta eurekin harreman estua mantenduko du.
- Alde horretatik, Pasaiaiko EH Bilduk Pasaia-Lezo Lizeoarekin orain arteko hitzarmena mantendu eta garatuko du.
- Pasaiaiko Udalak mantendu eta garatuko du Karmengo Ama eskolarekin duen harremana.
- Gizartearen euskalduntzearen bidean, D ereduaren eraginkor bakarra dela argi ikusten du EH Bilduk. Honenbestez, udalak eredu horren aldeko jarrera eta ekimenak gauzatzen jarraituko du.
- Lankidetzaren sustatzea eskola-unibertsitatearen eta udalerriaren artean elkarrekin, elkarguneak eta trukeguneak sustatuz, eskola-orduetatik kanpo jolasguneak erabiltzeko aukera barne.

2.4. Kultura

Duintasuna ez delako baliabide ekonomikoetara mugatzen, kulturak berebiziko garrantzia dauka Pasaiaarentzat eta EH Bildurentzat. Kulturak, ordea, hainbat ezaugarri eduki behar ditu, besteak beste, parte-hartzailea eta langileen zein industriaren memoria nabarmenduko ditu. Kultura, beste zenbait eskubideren moduan, eskubide kolektiboa izateaz gain, pertsona bakoitzak duen eskubidea ere bada.

Alor honetan hiru izango dira EH Bilduk gobernaturiko Pasaiaiko Udalaren gida lerro nagusiak: kultura herrian sortzea eta herritarrak gogoan edukitzea; herri biziak kultura bizia sortuko duela gogoratzea; eta azkena, kultura azpiegituren arteko elkarlana bilatzea.

Neurriak:

Kultura azpiegiturak:

- Ziriza etxea herritarrek erabiltzea sustatu. Horretarako egin zen parte-hartze prozesua berraztertu beharko da eta bere jadanekotasuna edo bijentzia zenbatekoa den aztertu beharko da. Partaidetza prozesuaren emaitza errespetatuz.
- San Pedron, planeatuta dauden kontenedoreak baino haratago, ekipamendu berria beharrezkoa da gauzatu zen parte hartze prozesuak argi utzi zuen moduan. Eraikin berria Proisa zegoen lekuan egingo du udalak prozesuan jasotako moduan. Prozesu

horretako beste ondorioak ere bere egin ditu EH Bilduk eta horiek gauzatzeko lan egingo du. Azpiegituren kudeaketa hobetzeko lan egitea da ondorio horietako bat.

- Beharrezkoa da egitea kultura azpiegituren kudeaketa hobetzea helburu izango duen azterketa; hain zuzen ere, aurreko puntuan aipatutako prozesuaren ondorioetako bat hori ere izan baitzen.
- Donibaneko gune kulturalerako erabilera eta programazio kultural egokia bukatzeko konpromisoa hartzen dugu. Honetarako barrutiko eta herri osoko eragile kulturelekiko harremana ezinbestekoa izango da.
- Luzuriaga eraikinak duen balio historikoarengatik eta ematen dituen aukerengatik Antxoko behar soziokultural asko bete ditzakeela uste dugu. Berau bereganatzeko borrokatuko dugu eta bere erabilera herritarrekin adostua izango da.
- Udal lokalak, guztionak diren heinean, erabilera balioanitzak izatea bultzatuko dugu, orokorrean. Erabilera eksklusiboen beharrei erantzuteko lagatzeak hitzarmen bidez egingo ditugu.

Kultura jarduerak

- Pasaiaiko kultur mapa egin egingo dugu, herritarrek jarduerak ezagutu eta balia ditzaten.
- Kultur agenda bateratua osatuko dugu, udalaren zein eragileen ekimenak biltzeko eta ezagutarazteko. Kulturaren alorrean udalak berak aurrera eramandako ekimenak ez ezik, herritarren eta elkarten ekimenetik sortutako ekintzak eta jarduerak sustatzen eta babesten jarraituko dugu. Jendeak eta kultur eragileek antolakuntza eta ekimenen erantzule izatera iritsi behar dute. Udalaren lana izango da kultur ekintzak eta programazioak koordinatzea, ezagutzera ematea eta laguntzea, baina eragileengan utziko ditu ekimena eta antolatzea. Elkarrekin eta banakoen ekarpenen freskotasuna babestu behar da. Udalak bide horretan urratsak egiten jarraituko du.
- Udalaren kulturaren inguruko jardueran ere herritarren eta elkarten parte-hartzea txertatzea garrantzitsua da. Horretarako, bi bide proposatzen ditu EH Bilduk. Pasaiaiko kulturaren norabidea definitzen lagunduko duen Aholku Batzorde baten sorrera aztertuko da, Euskararen alorrean emandako fruituak kontuan harturik, egoki jotzen dugu azterketa hori egitea. Bertan, Kultur eragileak elkartzea sustatuko litzateke, eta modu horretan elkarten arteko koordinazioa, ezagutza eta interlokuzio bateratua sustatu.

- Kultur programazioa dinamizatu eta gaurkotzeko beharra aztertuko dugu.
- Barrutietan dauden behar eta gabezia kulturei erantzuna bilatzeko asmoz, udalaren eskumenekoak diren kultur eskaintzak bermatzeko urratsak emango ditugu.
- Liburutegi zerbitzua zabaldu eta duindu.

2.5. Kirola

Kirola ere eskubide gisa ulertzen du Pasaiaiko EH Bilduk; era berean izan bada pertsonen osasunerako, garapen integralerako zein gizarte kohesiorako osagaia. Hori dela-eta, erakundearen eskumenean barruan, udalak bermatuko du jarduera hauetan herritar guztiak aritu ahal izatea, zeharkako politikak kontuan hartuta eta maila guztietan -eskola kirola, kirol ez federatua, kirol federatua eta errendimendu altuko kirola-.

Kirola dugu Euskal Herriaren kohesio, egituratze zein nazio garapenerako giltzarrietako bat; Pasaiaiko Udalak honekin bat egingo du, eta herriaren egoerara egokituko ditu eginkizun eta aldarrikapen horiek, euskara lehenetsiz, lehiaketa markoa definituz eta egituratuz, eta herrialdeen arteko harremanak sustatuz.

Neurriak:

- Dagoeneko martxan dauden azpiegiturak ezagutzera emateko bideak bilatuko ditugu. Barrutietako kirol eskaintza zein den jakinarazteko bideak ere jorratuko ditugu.
- Udalaren kirol azpiegiturak aztertu eta gaurkotuko ditugu (Kalparra, Antxoko kirolgunea...) abian direnen erabilera sustatuz eta antolatuz.
- Azpiegituren gabeziei aurre egiteko, besteak beste, Oarsoaldeko beste herrietan eta Donostian baliagarria izango den kirol txartel bateratua sustatzen jarraituko du udalak; era berean, Gipuzkoa osorako baliagarria izango den kirol txartela sortzea sustatuko dugu.
- EH Bilduren ekimenez sortu den eta praktikan geldirik dagoen Kirol Aholku Batzordea abian jarriko dugu eta edukiz beteko dugu baliabideen erabilera hobetzeko eta kirol taldeen arteko harremanak sustatzeko. Honenbestez, alorreko eragileen arteko koordinazioa sustatuko du, baliabideen erabilera hobea egiteko eta harreman emankorrak sor daitezen. Bereziki, irabazteko asmorik gabeko kirol erakundeekin elkarlanean sakontzeko bideak bilatuko ditu udalak.

- Pasaia badiaren inguruan sortutako herria da, hori dela-eta, itsasoa kirol jardueretarako ere erabiltzeko aukerak bultzatzen jarraituko dugu.
- Mendiko kirolak bultzatzeko ekimenak aztertuko ditu udalak, tartean, mendi bizikleta ibilbideak, eta oinezko bideak.

3. Pasaia Jasangarria

Pasaitarrok gure bizitza proiektuak zein jarduera soziala gauzatzeko ingurune egokia behar dugu. Pasaiaiko Udalak bere esku dauden tresna guztiak jarriko ditu ingurune hori hobetzeko eta pertsonen mesedetara jartzeko. EH Bilduk gidaturiko udalak herritarren beharrak lehenetsiko ditu interes ekonomiko enpresaialen aurrean. Era berean, irizpide bera jarraituko du lurralde antolaketa, garapen ekonomiko, ingurumena eta segurtasuna bezalako gaien inguruko erabakiak hartzean.

Lurrarekiko harreman hobea sutatuko duten ekimenak bilatuko ditu udalak; honen adibidea izan daiteke, esaterako baratz komunitarioen programa bat (Ulian, Jaizkibelen, Antxoko inguruneren batean...) Harreman horretan eragiteaz gain horrelako ekimen batek osasunean, gizarte harremanetan zein ekonomia zikularren inguruko kontzientziazioan lagun dezake.

3.1. Lurralde antolaketa eta biziberritzea

Pasaiaik eta pasaitarrek behar-beharrezkoa dute herria, portua eta bertan garatzen diren jarduerak antolatzea. Antolaketa hori pertsonen mesedetan egitea proposatzen du EH Bilduk; izan ere, azkeneko hamarkadetan EAJ-PNV, PSE eta PP-k proposaturiko ereduak botere ekonomikoen mesedetan lan egin baitu. Herritarren beharretara egokitu behar du Pasaiaiko lurretan eraikiko denak, eta ez espekulazioaren mesedetara.

Herritarrek dira beharrezko eraldaketaren xedea, bereziki, behar handienak dituzten herritarrek. Gure herritarren bizi kalitatea hobetuko duen proiektu osoa behar du izan. Honetan guztian pasaitarrak ez dira helburu hutsa izango, baizik eta protagonista.

Eraldaketa honek Pasaiaren nortasun jardueretatik abiatuko da; arrantza sektorearen eta portuko jarduera egoki, moderno eta arrazional baten aukerak egongo dira prozesu honen oinarrian. Horrekin batera ekonomiaren dibertsifikaziorako bideak urratuko ditu udalak, bai gizarte alorrean eta baita jarduera ekonomikoaren alorrean ere.

Lurralde antolaketa herri kohesionatua lortzera zuzendu behar da. Era berean, herri orekatua izateko eskualde orekatuak behar ditugu. Hori lortzeko tresnak dira eskualde barneko harremanak indartzea eta eskualdeetan zerbitzuak bermatzea, tokian tokikoa indartuz.

Neurriak:

- Herritik, herritarrek sortutako ordenazioa bultzatuko dugu. Hau da, bat egiten dugu herritarrek La Herrerarako osatu duten ordenazio proposamenarekin eta udalak bere egin zuenarekin.
- La Herrerako lurren dohainikako zesia exijitzen jarraitzen dugu, legezkoa delako, justua delako eta Pasaia etorkizunaren eta biziberritzearen gako nagusia bertan dagoelako.
- Herritarrek marraztu duten Pasaia garatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta hau urteetan egin dute parte hartze prozesuen bitartez, besteak beste, Ondartxo, Biteri eta La Herreraren inguruko prozesuetan.
- Era berean, mugen auzian duela 17 urte hasitako bidea jarraituko dugu, gure herriaren mugak aitortu daitezten, eta eremu horietan bizi diren herritarren eskubideak bermatuak izan daitezten. Udalak jarraituko du zerbitzua ematen eguneroko errealitatean pasaitar diren horiei guztiei.
- Udalak bere esku dagoen guztia egingo du dagokien erakundeek Topoaren trenbideak lur azpiratzeko lanak egin ditzaten; izan ere, lehentasunezko obra da Antxotarren bizitza kalitatea hobetzeko, azal eremu handia askatuko duelako eta garraio publikoaren hobekuntza ekarriko duelako.
- Oarsoaldea Garapen Agentziaren inguruan hausnarketa prozesua sustatuko dugu.
- Portuaren izaera juridikoa aldatzea proposatuko dugu dagokion tokietan herritarrentzat erabilgarria izan dadin.
- Mugikortasuna barrutien arteko lotura egia bihurtzeko tresna nagusietako bat da. Hori dela-eta, borrokatuko dugu motora zerbitzua zabaltzeko (barrutiak, aparkalekuak, interesguneak eta beste garraibideak lotuz), bidegorri sarea hobetzeko (bereziki Donibane eta Lezo arteko tartea eta San Pedro eta Trintxerpeko lotura), eta oinezkoak herrian eta inguruan segurtasunez ibil daitezten.
- Udalen Finantziatorako Foru Funtzaren egokitzapena bultzatuko dugu. Aldundiak herrietara bideratzen duen diru kopurua modu justuago batean kalkulatzeko da helburu, hala nola, banaketaren garaian herri bakoitzaren errealitate sozioekonomikoa ere kontuan har dadin.
- Exijituko ditugu herriak jaso beharko lituzkeen konpentsazioak, portuak herritarrei egunero sortzen dizkien kalteak direla-eta.

3.2. Turismoa

Turismoaren gaiak ertz asko ditu; beraz, azterketa sakon eta osoa behar du. Hausnarketa horretan Udalak herritarren eta eragileen laguntza edukiko du. Hala ere, irizpide orokor batzuk kontuan hartu behar dira eta EH Bilduk bere egiten ditu. Turismoa egon badagoen errealitatea da eta horrek dakarren presioa ere.

Aukerak aztertzeaz eta baliatzeaz gain, udalaren egitekoa izango da turismoak ekar ditzakeen kalteak aurreikusi eta arintzea. Aukera horiek mugikortasunean, enpleguan eta suspertze kulturean ager daitezke; hala ere, jarduera ekonomiko gisa ezin da sektore produktiboen ordezkoa izan. Hau da, Pasaia biziberritze ekonomikoaren oinarria ezin da turismoa izan.

Turismoak eragin ezberdina dauka herriko barruti bakoitzean, Donibanek saturazio puntua gertu daukan arren Trintxerpen eta Antxon ez dute errealitate hori bizi; hala eta guztiz ere, turismoak Donostian eragiten duen presioagatik barruti horietako alokairuko pisuen prezioa nabarmen igo da.

Hala eta guztiz ere, bisitariei begirako jarduera ez ezik turismoa bertako eta inguru-gertuko jendeari hainbat errealitate gure ikusmoldearekin erakusteko aukera ematen digu. Erakusten dena ez da neutroa eta gure proiektua bertan txertatu behar da; jarduera hau, besteak beste, modu jasangarrian, eta euskal ikuspegiarekin gauzatu behar da.

Neurriak:

- Udalaren eskumenen barruan, Oarsoaldearen esku dagoen turismo edukiak diseinatzeko garaian ikuspegi jasangarria eta euskal ikuspegi ardatz edukiko duten proposamenak egingo ditu udalak.

3.3. Merkataritza

Merkatalgune handiek multinazionalen zein lobby ekonomikoen alde egiten duten bitartean, tokiko merkataritzak herriak bizirik mantentzeko balio du, pertsonengan arreta jarritz. Tokiko merkataritza sustatzeko eta babesteko beharra dago; izan ere, eragin ordezkazina baitauka hainbat alorretan: enpleguan, herriaren bizitza sozialean, garapen ekonomiko jasangarrian, eta beste. Ondorio on hauek jendarte ereduaren eragina dute: gertuko merkataritza txikiak Pasaia dinamizatzen du; bertatik bertara egindako erosketek garraioaren kutsadura murrizten dute, 0 km filosofiak bertako produktuak saltzeko aukera areagotzen du...

Laurak Bat merkatari elkartearekin batera, Udalak eta Oarsoaldea Garapen Agentziak sustatuko dute bertako merkataritza kalitatezkoaren aldeko hautua herritarren artean zein merkatarien beraien artean.

Neurriak:

- Kaskoetako komertzioa sustatzeko neurriak hartuko ditugu.
- Azokak sustatuko ditugu, bertako produktuak saltzeko aukera eskainiz.
- Herriko komertzioa sustatzen jarraituko dugu, Laurak Bat elkartearekin batera.
- Lokal hutsen erregistro boluntarioa osatuko dugu, ekintzailetasunari bide emanez.
- Ordenantza egokitzeko prozesu bat irekiko dugu, komertzio berriak irekitzeko bideak errazteko.
- Kontsumo taldeen aktibitatea babestuko dugu.

3.4. Ingurumena

Pasaitarren garapen egokirako ezinbestekoa da ingurune garbi, osasuntsu eta antolatua. Ezinbestekoa da, beraz, ingurumenari behar bezalako arreta ematea, jasangarritasuna bermatzeko xedez. Pasaiaiko EH Bilduk hiru alor lehenesten ditu aldagai honi dagokionez; hala nola, energia, hondakinak eta, azkenik, garraioa eta mugikortasuna.

Neurriak:

- Etengabe atzeratu duten Donibaneko saneamenduaren proiektua gauzatzea sustatuko du Udalak; dagokien erakundeen aurrean, lehenbailehen eta modurik egokienean gauzatzea sustuko dugu eta dauden proiektuak gainbegiratuko ditugu.
- Portuak sortzen duen kutsadura jasanezina da, pertsonen ongizatea bermatze aldera, neurri zuzentzaileak exijituko ditugu. Honekin loturiko eginak dauden Osakidetzak eta beste edozein erakundek egindako mediku-ikerketak batu eta herritarren esku jarriko ditu udalak.
- Tokiko Agenda 21eko ekintza plana garatuko dugu.

3.4.1. Energia

Bi dira energiaren inguruko kezka nagusiak; batetik, etengabeko kontsumoa sustatzen duen eredia, eta baliabide ekonomiko gutxien duten pertsonen pairatzen duten pobrezia energetikoa

deritzotena. Udalak, beraz, sustatuko du energia erabilera zentzuzkoa eta ahalik eta garbiena; alor honetan energia berriztagarrien aldeko apustua eginez. Energia txirotasunari aurre egiteko moduak aztertuko ditu gizarte politiken ingurunearen barruan.

Neurriak:

- Gure herriak ahalik eta burujabeena izateko energia berriztagarrien produkzioarako proiektuak martxan jartzeko aukerak aztertuko ditugu. Era berean, egokia den kasuetan jasangarritasun neurriak ezarri eta energia berriztagarria sortzeko tresneria instalatuko da udal eraikinetan.
- Kontsumo baxuko argiteria zabaltzeko ekimenari segida emango dio.
- Ibilgailu elektrikoak erostea sustatuko da.
- Ibilgailuentzako argindar-puntuak jartzea sustatuko du Udalak.

3.4.2. Hondakinen kudeaketa jasangarria.

Erraustegiak galga dakarkio birziklatzeari eta hondakinen kudeaketa egokiari; horiek, ordea, ekonomia zirkularrean aurrera egiteko gakoak dira. Beraz, Pasaiaiko EH Bilduk kezka bizi du gure herrian gertatu den birziklatze mailaren jaitsiera drastikoa, %76,6tik %49raino. Fenomeno horrek, hau da hondakinen bereizketaren jaitsierak ekarri du Udalaren gastua milioi bat euro igotzea zerbitzu honetan. Gipuzkoako herri gehienetan %70eko langa gainditzen dute, eta zentzu honetan, zero zabor filosofiaren baitan EH Bilduk Pasaiairako jartzen duen helburua ere horixe da, honek gure osasunean, poltsikoetan eta ingurumenean izango lituzkeen abantailekin. Birziklatze maila izanik gure helburua, eta ez sistema konkretu bat, udal taldeen artean kontsentsua bilatuko dugu berau lortzeko.

- Hobari sistema bat proposatuko dugu, gehien birziklatzen dutenak sarituko dituen.
- Auzo-konposta guneak zabaltzea proposatuko dugu.
- Ardurazko kontsumoa bultzatuko dugu, “erabili eta bota” logika gainditu eta herritarren sentsibilizazioa eta ingurumen heziketa sustatuz.
- *Zerbitzua herritarren beharretara ahalik eta hoberen egokitzeko Udalak berriz modu zuzenean ematea da egokiena eta zentzu horretan zerbitzua publikatuko dugu.*
- *Hondakinen bilketa sisteman EH Bilduk bilatuko du beste indar politikoekiko kontsentsuzko irtenbide bat eta herritarrek honen berrestea egingo dute.*

3.4.3. Garraioa eta mugikortasuna

Pasaia jasaten duen presio urbanistikoa handia da eta baita pasaitarrek duten espazio beharra ere. Bestalde, gizakiok mugitzeko beharra dugu eta mugitzeko aukerak bermatu behar zaizkigu. Hala ere, eskubide horren eta espazio beharraren arteko oreka gerta dadin garraioak publiko eta kolektiboa behar du izan.

Hori guztia kontuan hartuta, hurrengo mugikortasun hierarkia proposatzen dugu:

1. Oinezkoak, bizikletak eta garraio publiko kolektiboa ereduaren ardatz izango dira.
2. Erregai fosilekiko/espazioarekiko mendekotasun txikia duen garraio pribatuak (motoak, auto elektrikoak) daude eredu honen bigarren mailan.
3. Azkenik, autoak

Neurriak:

- Mugikortasunaren inguruko hausnarketa egingo dugu herritarrekin batera, barruti bakoitzeko egoera hobetze aldera.
- Arraunlari kalearen peatonalizazioan urratsak emango ditugu.
- Bizikleten sustapenerako ekimenak bultzatuko ditu udalak.
- Irisgarritasuna bermatze aldera, oztopo arkitektonikoen mapa egingo dugu eta berauek ezabatzeko plan bat osatuko dugu.
- Antxo eta San Pedroko bertakoen sistema ebaluatu eta Donibanen eta Trintxerpen egokia den sistema ezartzea aztertuko dugu; honetarako kontutan hartuko dira herritarren beharrak eta iritziak. Era berean, Bizkaia plaza, Luzuriaga 2 eta beste hainbat guneren erabilera antolatuko du udalak.
- Portuko Agintaritzarekin batera Lezo aldeko portuaren eremuetan asteburuetan aparkatzea zein Lonja azpiko aparkalekuaren eta Hospitalillokoaren erabilera adostuko du udalak.
- Euskadi etorbideko “konbibentzia” gunearen oinezkoentzako erabilera sustatuko dugu.

3.5. Segurtasuna

Pertsona orok du ingurune seguru batean bizitzeko eskubidea. Pasaian, azken bolada honetan, hainbat gertakarik eta hauek eduki duten oihartzunak piztu dute gai horren inguruko kezka. Gaiari modu efektibo eta aurrerakoian heltzeko, EH Bilduk modu integralean ekingo dio eta arreta berezia emango dio gai honen inguruan sor litezken jarrera xenofoboak saihesteko . Gai honi dagokionez ere, Pasaiaiko EH Bilduk tokiko zerbitzuak lehenesten ditu.

Neurriak:

- Departamenduaren azterketa bat egiteko konpromisoa hartzen dugu. Bide honetan herritarrek eskatzen duten bestelako ikuskera oinarri izango da. Herritarrek, udalak eta udal langileek parte hartuko dute prozesuan eta Pasaiaiko Udaltzaingoaren norabidea zehaztuko du.
- Udal sailaren moldatzean, egitura berriak bermatu beharko ditu, besteak beste, genero berdintasuna eta emakumeen presentzia aktiboa.
- Gaiari modu integral eta osoan heltzeko, Babes-Zaintza mahaia osatuko du udalak beste hainbat eragilerekin, udaltzaingoarekin, Gizarte Zerbitzuak, gizarte eragileak...

3.6. Udal jarduera eta egitura

Udal jarduera eta egitura herritarren zerbitzura eta beraien esanetara egon behar du. Horretarako, herritarren parte-hartzea bultzatuko dugu. Udalak kalitatezko zerbitzuak eman behar ditu, langileak helburu horren norabidean subjektu aktibo bilakatuz. Hortaz, zerbitzu publikoen eredu garden, euskaldun eta eraginkorraren aldeko hautua egiten du EH Bilduk.

Neurriak:

- Udalak berreskuratzeko aukera duen zerbitzuen azterketa egingo du, 2011-2015 agintaldian kale garbiketarekin egin genuen moduan.
- Langileen parte-hartzea sustatuko du udalak.
- Udalaren eguneroko jardunean zehar-lerroak (euskara, aniztasuna, berdintasuna...) garatzen jarraituko du udalak, barne zein kanpo harremanetan.
- Langileen eskubideak zein zerbitzu publikoak hobetze aldera, horiek bermatzen dituzten klausula sozialak ziurtatuko ditu udalak kontratu berrietan.

- Jazarpen sexistari, sexu-jazarpenari eta lan-jazarpenari buruzko barne protokoloaren prozesua bukatu eta martxan jarriko du udal gobernuak.
- Udaleko zerbitzuak hobetzeko beharrezkoak diren lanpostuak sortuko ditugu, behin behineko egoeran dauden langileengandik hasita. Horretarako Enplegu Eskaintza Publikoa prestatuko dugu.
- Udalak zerbitzuen zein langileen lan eta bizi baldintzak bermatzeko jarrera izango du. Lan alorrean ere segurtasuna eta istripuen prebentzioa landuko ditu.

4. Pasaia Demokratikoa

Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakundeak, eta horregatik bereziki garrantzitsua da erakunde hauen jokaera berezkoak dituen eskumenetan zein herritarren eskubideen defentsan egiten dituzten ahaleginak. Lehenengoei dagozkie hurrengo puntuko kontzeptuak, besteei berriz atal honetako gainerakoak.

4.1. Gardentasuna, Gobernantza eta parte-hartzea

Aurreko puntuan adierazi moduan, udal egiturak herritarren beharrak asetzea eduki behar du helburu; baina hori modu zehatz batean egin behar du Pasaiaiko Udalak modu garden eta parte-hartzailean jokatu behar du. Parte-hartzea ez da erakundeen oparia herritarren eta elkarten eskubidea baizik.

Batzorde informatiboak eta udalbatzarrak ahalik eta irekienak izan daitezen hainbat neurri hartuko ditu Udalak: deialdiak aurreratu,

Udalak informazio egokia eta gardena eskaini behar du, herritarrek horren inguruko eztabaidatzeko eta erabakietan eragiteko aukerak edukitzeko. Informazioa horren ezaugarria ulergarria izatea da. Era berean, burokraziaren gutxitzea sustatuko du udalak.

Parte-hartzea, berriz, kalitatezkoa izango da. Horrek esan nahi du hiru aldagai izango dituela eraginkorra izatea, eraldatzailea izatea eta eraikitzailea izatea.

Neurriak:

- Webgunea, erreminta gisa berrikusiko dugu. Udalaren informazioa jasotzeko tresna izatetik, herritarren beharrei erantzungo dien tresna izatera pasatuko da, eta bertan eskaerak, tramiteak eta abarrekoak egiteko aukera egongo da.
- Informazioa herritarrengana bideratzeko ekimen zehatzak gauzatuko ditugu, webgunearen eraldatzeak informazioa modu errazean eta argian ematea izango du helburu.
- Aurreko puntuarekin bat eginez, udalak herritarrek informatzeko aldizkari bat aterako du.
- Alkatearen agenda publiko egingo dugu.
- Zinegotzien liberazio sistema berrikusiko dugu.

- Batzorde ireki eta parte-hartzaileak sustatzen jarraituko du udalak.
- Auzolana sustatuko dugu.
- Plenoak ibiltariak eta arratsaldez egiteari ekingo diogu.
- Herritarren parte-hartze zuzena sustatuko dugu. Gobernu jarduera osoaren berri izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izateko informazioa eduki dezaten bideak zabalduko ditugu.

4.2. Bakedun Pasaia

Bakedun pasaia lortzeko EH Bilduk egia, memoria eta justiziaren kontzeptuen gainean eraikiko du bere jarduna. Hiru alor horiek izango, dira, beraz udalean gauzatuko diren bakegintza lanen motorrak. Horietan guztietan diskrezioa, errespetua eta kontsentsua izango dira erabiliko diren tresnak, biktima guztien eskubide-berdintasuna sendotzeko. Hori guztia egiteko orduan, Kargu instituzionalekin eta herritarrekin batera lan egingo dugu.

4.2.1. Presoak

Justizia ezaren alorrean, bizi-bizirik dagoen egoera da presoena. Hartara, aipagarriak dira bidegabeki ezarritako zigorren luzatzea, preso enitartekoak eta lagunak zigortzen dituen sakabanaketa eta larri gaixo dauden preso en egoera.

Neurriak:

- Preso eta senideen egoera zein den begiratu eta dagozkien laguntzak eta babesa bideratuko ditu udalak, bereziki gaixotasun kasuan.

4.2.2. Egia eta memoria

Memoriaren inguruan egindako lanak memoria anitza eta zabala edukiko du oinarri. Zabala bere denborari dagokionez eta zabala bere barruan hartuko dituen alorre dagokienez. Beste batzuen artean, genero-ikuspegia sartzeak ezinbestekoa izan behar du.

Neurriak:

- Memoria zabalaren eta osoaren bidean urratsak egiten hasiko da udala.

4.2.3. Errekonozimenduak

Giza eskubideen urraketan biktima izan direnei tratamendu berdina eman behar zaie, testuingurua, unea edota agente urratzailea edozein izanik ere.

Neurriak:

- EH Bilduk alor honetan lan egiteko prestutasuna agertuko du.

4.3. Udalbiltza

Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen duen nazio mailako gune instituzional bakarra da Udalbiltza. Euskal Herria aintzat hartzen duen udal hautetsi orok parte hartzeko eskubidea du inolako bertan.

Iparra/Hegoa, Kostalde/ Barnekalde, Hirigune/ landa eremua, zein herrialde zein eskualdeen artean desoreka handiak daude Euskal Herrian. Gure lurraldearen errealitatea ezagutzea eta nazio mailako barne elkartasuna baliatuz barne kohesioa sustatzea da Udalbiltzaren helburua.

Udalbiltzaren jarduera erritmoekin bat eginez Pasaiako ezkerreko hautetsi independentistak eginkizun hauetara batu ohi dira.

Neurri zehatzak:

- EH Bilduko hautetsiek era aktiboan parte hartuko dute Udalbiltzaren jardunean. Abian dauden ekimenak, Oarsoaldea eta Zuberoaren arteko harremana kasu, sendotzeari ekingo diote. Horretarako Oarsoaldea Garapen Agentzia bezalakoak baliatuz.
- Era berean, Euskal Herriak pairatzen duen zatiketa juridiko, politiko eta administratiboari aurre egingo diogu. Esaterako, mapa ofizialetan Euskal Herria desagerrarazteko joera handia badago ere, munduari Euskal Herria existitzen dela eta Euskal Herritarrak izan bagarela adierazteko Udalbiltzak abian dituen ekimenetan parte hartuko dugu.

